



Kate motzean

♦ **Jose Antonio Nielfa, 'La Otxoa'**

• KANTARIA.

«Euskal selekzioak ofiziala izan behar du»

► **Zure kantu baten arabera, Bilbo gertu izatea da Donostiak duen gauzarik hobere- na. Ez da horrenbesteko izanen.**

(Barrez) Bilbainada bat da, duela zenbait urte Iñaki Urangak, Bejaranok, Consorcioak eta nik abestu genuena. Kantuak arrakasta handia eduki zuen. Egia esateko, donostiarrak zorte handia dute gu al- boan edukita, baina guk ere zorte handia dugu donostiarrak hurbil izanda.

► **Kantu horretan bertan diozunez, noizean behin San Mamesen jokatzetik eduki- tzea da Realaren lorpenik handiena. Ez zara poztuko Clementeren Realak dituen arazoekin?**

Ezta pentsatu ere. Egia esateko, Clemente ez dut oso gogoko, baina Real jaistea ez litzaida- ke batere gustatuko. ► **Nola dakusazu Athletic den- boraldi honetan?**

Oso arraro dabil, baina talde guztiak dabilta arraro. Realaren kasua adibide ona da: sekula-

ko taldea du eta jaitsiera postuetan dago.

► **Zein da gehien maite du- zun Athleticetako jokalaria?**

Garai guztietako jokala- riak aintzat harturik, ni- retzat hoberena Iribar izan da, eta atezainak alde batera utzita, Fidel Uriarte.

► **Zure idurikoz, Euskal Her- riko selekzioak parte hartu behar al du nazioarteko lehiaketetan, ofiziala izan behar al du?**

Nire ustez, bai, baina herriak hartu beharko luke erabakia erreferen- dum baten bitartez. Ira- baziko bagenu, prime- ran.

► **Erreferenduma al da herri honek dituen arazoak kon- pontzeko bidea?**

Hori litzateke irtenbide-

Bilbotar peto-petoea, Athleticzale amorratua, beltzarana, sendoa eta homosexuala. 'Libérate' kantuaren bitartez egin zen ezaguna, eta kantua ereserki bilakatu zen euskal herritar askorentzat. Urte andana igaro da, baina berak hortxe jarraitzen du, lehian. Disko berria plazaratu du: 'Más Otxoa'. Otxoa gehiago.



«Erreferenduma da arazoak gainditzeko bidea»

rik hoberena. Dena de- la, politika oso korapila- tsua da. Aspaldidanik nahiago dut horrelakoe- tan ez sartu.

► **Gauzak horrela, gaia alda- tuko dugu. Lige gutxiago**

eta amodio gehiago da zure azken diskoko aldarrikape- netako bat...

Nik nire tabernan ikus- ten dudanez, jendeak badu gogoak kalera ate- ratzeko, eta amodioa to-

patzeko, baina, amodioa topatu ordez, behin- behineko harreman ho- tzak topatzen ditu. Amodio gehiago behar dugu.

► **Lige asko eta amodio gu-**

txi. Heterosexualitatetik maiz horrelaxe ikusten da homosexualitatea. Irudi es- tereotipatua ala benetakoa da?

Nik 15 urte eman ditut bikotekide berarekin. Kontua da zuzenagoak garela. Lotura gutxiago dauzkagu; besteak bes- te, ez dugulako seme- alabarik. Horrenbestez, harremana moztu behar badugu, moztu egiten dugu.

► **Bilbozale amorratua zara. Toki egokia izan al zen Joe Antonio Nielfa izatetik La Otxoa izatera pasatzeko?**

Aurretik Madrilan, To- rremolinosen eta Bar- tzelonan izan nintzen, baina bestelako kan- tuak abesten nituen. Egia esateko, Bilbo toki

egokia izan zen. Zapal- k u n t z a handia zego- en, eta Libérate (aska zaitez) abestuko zuen norbaiten premia zego- en.

► **Bilboz landara, zer bizio duzu?**

Asko gastatzen dut, ba-

tez ere arropan. Ez dut beste biziorik.

► **Jatea oso gustuko duzula esan didate.**

Bai, asko jaten dut, as- ko eta denetarik, baina batez ere marmitakoa gustatzen zait. Zoratu egiten nau.

► **La Otxoa ez den abeslari bat?**

Nik 70eko hamarkada asko maite dut. Raphael eta Camilo Sesto asko gustatzen zaizkit. Rap- haelen kontzertu guztie- tara joaten nintzen. Bartzelonan behin bi egun eman nituen txar- teldegiauren aurrean, Raphaelen kontzertua ikusteko sarrera esku- ratzeko.

► **Bada, medikuarengana joan beharko zenuke. Hori ezin da normala izan.**

(Barrez) Baita zera ere! Animalia zen, ikaraga- rria.

► **La Otxoarena ez den kan- tu bat?**

Mocedadesen Eres tú.

► **La Otxoaren kantu bat?**

Libérate.

• Juan Kruz Lakasta •

Bilintx

DONOSTIAN: Fermin Calbeton, 21
 Tel.: 943 42 09 30 - 943 42 00 80 / Faxa: 943 42 23 63
IRUNEN: Colon Pasealekua, 8 - Tel.: 943 63 17 26
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 943 67 35 33
BERGARAN: Ibargairi, 14 - Tel.: 943 76 40 50
 E-mail: Bilintx@jalgi.com

Xalbador

IRUÑEAN: Comedias, 14
 Tel.: 948 22 41 67 / 948 22 99 81 - Faxa: 948 21 10 61
 E-mail: Xalbador@jalgi.com



**ORAIN DENAK
 BATERA INTERNET-EN**

megadenda

www.jalgi.com/megadenda

Arriaga

GASTEIZEN: San Prudentzio, 7
 Tel.: 945 14 45 01 - Faxa: 945 13 56 01
 San Anton plaza, 7
 Tel.: 945 26 90 33 - Faxa: 945 26 22 12
 E-mail: Arriaga@jalgi.com

Urretxindorra

BILBON: Iparragirre, 26
 Tel.: 94 424 02 28 / 94 424 43 96 - Faxa: 94 424 42 35
 E-mail: Urretxindorra@jalgi.com

